# 2025eko KULTURA PROGRAMAZIOA



# BARNEAN ZAITUEN

*KULTURA*

bilbaokultura.eus

KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE

Bilbao

Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

# 2025. urterako Bilboko Kultura Agenda

aurkezten dizugu

Bertan aurkituko dituzu
2025ean ospatuko diren
askotariko ekimen kulturalak,
bai Uriaren erdigunean,
bai Bilboko barrutietan eta auzoetan.

Ekimen kultural horiek herritar guztien
gustuak eta interesak betetzeko
pentsatu dira.

Honako hauekin lotutako ekimenez eta jarduerez
gozatu ahal izango duzu: adierazpen artistikoak,
eszenikoak, sortzaileak eta diseinuzkoak,
literaturakoak eta ezaguerakoak,
ikus-entzunezkoak, musikalak,
ondarearen ezagutzakoak, folklorikoak,
jaietakoak eta aisialdikoak.

Gaiaren arabera, guztira 10 atal izango dira
ekitaldiekin eta jarduerekin.
Horrela, gure hiriko kulturan
ahalik eta gehien parte hartu
eta gozatu ahal izango duzu.

Gainera, kultura agenda honetan esaten dugu
zein lekuk eta ekitaldik dituzten
**irisgarritasun neurriak.**

Informazio hori agendan sartu dugu
dibertsitate funtzionala duten pertsonek
kultura programazioan parte hartu
eta sartu ahal izatea errazteko.
Horrela, **2023-2033ko Bilboko
Kulturaren Plan Estrategikoaren**
ildoetako bati jarraitzen diogu.

2025ean, kultura programazio betea dugu,
pertsona guztientzat pentsatutakoa.
Zuretzat pentsatutako programazioa,
kultura hau **barne hartzen zaituen kultura** delako.
**Zure zain gaude!**

# IRISGARRITASUN
## *IKONOAK*

Honako ikur hauek adierazten dituzte
dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako
irisgarriak diren guneak eta ekitaldiak:

Toki irisgarria mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

Sarrera irisgarria, eskailerarik gabe.

Arrapala irisgarria eraikinetan eta hiriko beste toki batzuetan.

Egokitutako komuna mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

Igogailu irisgarria mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

Audio-deskribapen sistema.
Testuak irakurtzen ditu eta irudiak azaltzen ditu ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.

Soinua transmititzeko sistema entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat: begizta magnetikoa, FM ekipoa, etab.

Braille sistemara egokitutako materialak itsuentzat.

Ikur berria, espazio edo produktu bat dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat irisgarria dela jakinarazteko.

Laguntza produktuak ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.

Zeinu-hizkuntzaren interprete zerbitzua gorrentzat.

# AURKIBIDEA


ARTE ESZENIKOAK ........ 6
MUSEOAK ........ 18
ARTE BISUALAK ........ 24
SORMENEZKO DISEINUA ETA INDUSTRIAK ........ 30
LITERATURA, GIZARTEA ETA EZAGUTZA ........ 36
IKUS-ENTZUNEZKOAK ........ 48
MUSIKA ........ 60
ONDAREA ETA IDENTITATEA ........ 72
AISIALDI KULTURALA ........ 82
HURBILEKO KULTURA ........ 88

# *ARTE* **ESZENIKOAK**

Arte eszenikoak dira publikoarentzako edozein agertokian antzezten diren adierazpen artistiko guztiak.

Arte eszeniko nagusietako batzuk dira: antzerkia, dantza, musika eta zirkua.



## ARRIAGA ANTZOKIA

### Zer eskaintzen du?

Antzerki, dantza, musika eta opera emanaldien programazio betea du. Lan egiten duten konpainia guztiek kalitate bikainena dute eta ikuskizun propioak aurkezten dituzte. Calixto Bieitok zuzenduko ditu.

Baita ABAO-OLBErekin lankidetzan eta haurrentzako ABAO Txiki Arriagan programarekin jarraituko du ere.

**Web-orria: https://www.teatroarriaga.eus/?lang=eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## CAMPOS ELÍSEOS ANTZOKIA

### Zer eskaintzen du?

Campos Eliseos Antzokiko Kupula Aretoak eta Antzerki Aretoak eskaintzen dituzte euskal, estatuko eta nazioarteko konpainia onenen antzerki-, dantza-, musika-, umore-ikuskizunak eta familia osoarentzako emanaldiak.

Antzoki hau Bilboko erdigunean dago. Duela 15 urte, berritu eta berriro ireki zen publikoarentzat.

**Web-orria: https://www.teatrocampos.com/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## EUSKALDUNA KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA

### Zer eskaintzen du?

Antzerki eta musika emanaldiak eta erakusketak
urte osoan zehar.
Gainera, ABAO-OLBEren Opera Denboraldia bertan egingo da
eta Bilbao Orkestra Sinfonikoaren egoitza izango da.

**Web-orria: https://www.euskalduna.eus/eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## ABAO-OLBE BILBAO OPERA

### Zer eskaintzen du?

2025ean, Euskalduna Jauregiko
Opera Denboraldia eskainiko du.
Gozatu ahal izango diren opera batzuk dira:
Wagnerren “Tristan und Isolde”, urtarrilaren 18tik 27ra.
Donizettiren “La favorite”, otsailaren 15etik 24ra.

ABAO-OLBE Txikiren denboraldiak 4 musika-ikuskizun
emango ditu haur eta gazteentzat
eta Arriaga Antzokian egingo dira.

ABAO-OLBE Bilbao Opera kultura-eredu ona da
Euskadin, estatuan eta nazioartean.

**Web-orria: https://www.abao.org/eu/**



## BBK SALA

### Zer eskaintzen du?

Kale Nagusian dagoen kultura
eta jarduera programa zabala hedatzeko gunea da.

Jazza, fadoa, flamenkoa, rock and rolla, trikitia
txalaparta eta beste musika mota batzuk
entzun daitezke bertan.
Bai eta antzerkia, poesia, zinema eta erakusketak
ikus daitezke ere.
Gainera, mendia, itsasoa, lurra, unibertsoa, umorea,
magia eta bizitzari buruz hitz egiteko jarduerak daude.

**Web-orria: https://salabbk.bbk.eus/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBAOESZENA BALIABIDE ESZENIKOEN ZENTROA

### Zer eskaintzen du?

Aretoak lagatzea, konpainia hasi berriei laguntza,
antzerki ikastaroak haurrentzat eta gazteentzat,
antzerki hastapeneko ikastaroak helduentzat
eta ikastaro espezializatuak artistentzat.

Lan eszenikoak prestatzeko, sortzeko
eta abiarazteko udal-zentroa da.

## PABELLÓN 6

### Zer eskaintzen du?

Dantzako, antzerkiko eta beste arte eszenikoetako
sortzaileei ezagutzeko, elkartzeko
eta ikuskizunen kudeaketa partekatzeko
aukera ematen du.

Pabellón 6ko Antzerki Laborategia
eta Antzerki Konpainia ditu
eta 2025an ekoizpen propioak egingo dituzte.
**Antzerki Arineko XII. Jardunaldiak** antolatuko dira
**2025eko apirilaren 11tik maiatzaren 11ra.**

**Web-orria: https://pabellon6.org/?lang=eu**

**Irisgarritasun-neurriak**

## LA FUNDICION

**Zer eskaintzen du?**

Kultura-gune berritzaile honetan sortzaileek haien artean eta publikoarekin elkartzen dira.

Bertako programekin euskal artistei laguntzen zaie lanak sortzen eta munduko beste tokietara hedatzen.

**Web-orria: https://www.lafundicion.org/?lang=eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## HARROBIA

**Bilbo-Otxarkoagako Ekoizpen Eszenikorako Berrikuntza Zentroa**

**Zer eskaintzen du?**

Arte eszenikoen artistentzako eta konpainientzako lan eta ekoizpen guneak.
Antzerkiko prestakuntza profesionala, berrikuntza eta proiektu artistiko berritzaileak sortzea ere bultzatzen ditu.

Eskena, Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarteak kudeatzen duen udal-zentroa da.

**Web-orria: https://www.harrobia.org/?lang=eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## ZIRKOZAURRE

### Zer eskaintzen du?

Zorrotzaurre auzoko zirkuaren munduari lotutako jardueretarako gunea da.

Artista adituek ematen dituzten ikastaroak, tailerrak eta eskolak eskaintzen ditu.
Egonaldi artistikoak ere hartzen ditu artistak elkartu eta elkarlanean aritu daitezen.
Gainera, sorkuntza eta ekoizpen konpainia propioa dauka.

**ZKZ Topaketa jaialdia** antolatzen du urtero, **abenduan.**

**Web-orria: https://www.zirkozaurre.com/eu/**



_itzuli

## ZAWP - ZORROTZAURRE ART WORK IN PROGRESS FICC TERMINALA

### Zer eskaintzen du?

2008. urtean jaio zen kultura-mugimendu honek Deustuibarreko eta Zorrotzaurreko bizitza sozialaren, ekonomikoaren eta kulturalaren kalitatea hobetzeko lan egiten du.

2 gune desberdin ditu:

- **La Nave Va:** cowork-erako, partekatutako lanerako gunea ekintzaileentzat eta elkarteentzat.
- **La Terminal:** Kultura eta Sormen Industrien Fabrika. Aisialdia, kultura eta gastronomia proiektuak egiten dira.

**Web-orria: https://www.zawp.org/**
**www.laterminal.eus**



## D8 SORKUNTZA FAKTORIA

### Zer eskaintzen du?

2019. urtetik martxan dagoen dantzari lotutako jarduera-gunea.
Dantzako artistak topatzea eta elkartzea bultzatzen du eta publiko gehiago erakartzen du jardueretara.

2025ean tailerrak, kontzertuak eta artisten arteko topaketak egingo dituzte sormena garatu ahal izateko.

**Web-orria: https://d8sf.eus/**

## DEIALDIAK ETA EGONALDIAK

### Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

### Zer eskaintzen du?

Azkuna Zentroak artistei sortzen laguntzeko proiektuak ditu.

Proiektu horiek dira:
Artista Elkartuak.
Ikertzaile Elkartuak.
Komikigintzako Beka.
Babestu, Sorkuntzan laguntzeko deialdia.

**Web-orria: https://www.azkunazentroa.eus/eu/deialdiak/**

**Irisgarritasun-neurriak**

## ESZENAZ. Zuzeneko arteen denboraldia Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao

### Zer eskaintzen du?

Proiektu eta jarduera artistikoen erakusketarako, praktikarako eta ikerketarako programa.
2024-2025 denboraldian, nabarmentzen dira bertako eta nazioarteko artisten eta konpainien lan berritzaileak.

**Web-orria: https://www.azkunazentroa.eus/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**

## KARRIKAN 8. deialdia

**Noiz? 2025eko urtarriletik martxora**

### Zer eskaintzen du?

Euskadin kaleko arte-proiektuak sortzea eta hedatzea bultzatzen duen plataforma.
Bilboko Udalak Bilboko Kalealdia jaialdiaren bitartez hartzen du parte plataforma honetan.

2025eko urtarrila eta martxoa bitartean argitaratuko da kultura-proiektuen sorkuntzarako Karrikan laguntzen 8. deialdia.

**Web-orria: https://karrikan.eu/eu/karrikan-eu/**

## ARTISTAK EGOITZAN

**Noiz? Martxoaren 11tik apirilaren 11ra**

**Zer eskaintzen du?**
Euskal Herriko artistei eta erakunde artistikoei
arte eszenikoetako sorkuntza- eta ikerketa-prozesuetan
laguntzeko deialdia.

**Web-orria: https://badbilbao.eus/eu/**



## BLV-ART

**Noiz? Apirilaren 3tik 13ra**

**Non? Bilbo Zaharra. San Frantzisko**

**Zer eskaintzen du?**
Arte-adierazpen modu berriei lotutako programa.
Zubirik Planaren barruan dago.
Plan horrek kulturaren bidez,
Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoetako
bizi-kalitatearen alde egiten du.

**Web-orria: https://bilbaokultura.eus/**

## ACT Eszena Berritzaileen Nazioarteko XXII. Jaialdia

**Noiz? Ekainaren 4tik 7ra**

**Zer eskaintzen du?**

Dantzako, zirkuko, antzerkirako testuen eta beste arte eszenikoen 3 edo 4 piezaz osatutako saio laburrak.
ACT Jaialdian nazioarteko artisten tailerrak eta hitzaldiak eta artisten eta ikusleen arteko saioak ere egongo dira.

**Web-orria: https://actfestival.com/eu/**



## LEKUZ LEKU

**Noiz? Ekainaren 25etik 28ra**

**Zer eskaintzen du?**

Estatuko eta nazioarteko artisten dantza pieza laburrez osatutako programazioa.

Dantza pieza horiek Bilboko hainbat lekutan dantzatuko dira, dantzari eta hiriko ondareari balioa emateko.

Aurten, jaialdi honen 21. edizioa da.

**Web-orria: https://www.lekuzleku.com/?lang=eu**



## BILBOKO KALEALDIA

### Kaleko Antzerkiaren eta Arteen Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Ekainaren 30etik uztailaren 5era**

**Zer eskaintzen du?**

Bertako, estatuko eta nazioarteko konpainia nabarmenen zirku, dantza, clown, kalejira eta beste arte eszenikoen emanaldiak.

Jaialdia Bilboko Udalak antolatzen du.
Jarduera gehienak izango dira Casilda Iturrizar parkean, Arriaga plazan eta UPV/EHUren Bizkaia Aretoan.

**Web-orria: https://bilbokokalealdia.eus/eu**



## BILBO HAURRENTZAKO ANTZERKIA

**Noiz? Ikasturtean zehar**

**Zer eskaintzen du?**

**Bilbon Eskolatik Antzerkira**

Toki ezberdinetan egiten diren dantza- eta antzerki-emanaldien kanpainak ikastetxeetako ikasleentzako.
Kanpaina hau Mitusu elkarteak eta Bilboko Udalak antolatzen dute.

**Eskolen arteko antzerki lehiaketa**

Ikastetxeetan sortutako antzerki-emanaldien lehiaketa.
Proiektua Udalak bultzatzen du.

Aukeratutako lanak eta sarien banaketa **ekainaren 1ean** ikusi ahal izango dira, **Arriaga Antzokian** egingo den emanaldian.



## DANTZALDIA

**Noiz? Irailetik abendura**

**Zer eskaintzen du?**

Egungo dantzan eta dantza berritzailean espezializatutako jaialdia.
Formatu ezberdinetako piezak erakusten ditu hiriko leku esanguratsuetan.

Jaialdi honetan, estatuko eta nazioarteko kalitate handiko konpainiek hartzen dute parte.

Aurten, jaialdi honen 26. edizioa da.

**Web-orria: www.dantzaldia.org/?lang=eu**



## BILBAO ANTZERKI DANTZA, BAD

**Bilboko antzerkia eta dantza garaikidearen jaialdia**

**Noiz? Urriaren 16tik 26ra**

**Zer eskaintzen du?**

Antzerki eta dantza garaikideen erakustaldia.
Erakustaldi honetan bertako, estatuko eta nazioarteko dantzako eta antzerkiko joera eszeniko berritzaileak ikus daitezke.

**Web-orria: https://badbilbao.eus/eu/**



## BILBAO TX
## Bilboko Txotxongiloen Nazioarteko 44. Jaialdia

**Noiz? Azaroan**

**Zer eskaintzen du?**

Txotxongiloen eta objektuen ikuskizunak
eta gogoeta- eta ikaskuntza-guneak.

Emanaldiak izango dira La Fundicionen,
hiriko plazetan eta auzoetan
eta Otxarkoagako Txotenagunean.

**Web-orria: http://www.bilbaotxfest.org/**



# MUSEOAK



## BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

**Non? Doña Casilda parkean**

Museo honek 100 urtetik gora ditu.
Artearen historiako eta euskal artearen artista handien artelan bilduma zabala du.

Museo honen bilduman daude XVIII. mendetik XXI. mendera doazen margolanak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, argazkiak, kartelak, diseinuko eta arkitekturako objektuak.

**2025. urtean** museoak handitze-lanekin jarraituko du, Norman Fosterren eta Luis María Uriarteren Agravitas proiektuaren bitartez.
Handitze-lanen bitartean, museoaren jarduera eraikin zaharrean egingo da.

**Web-orria: https://bilbaomuseoa.eus/eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

**Non? Abandoibarra 2, Salbeko zubiaren ondoan**

Arkitektura garaikidearen museo esanguratsuenetako bat da.
Barruan lan oso ezagunak daude, besteak beste, Richard Serraren "Denboraren materia".

**2025erako egitaraua**

- Artista hauen erakusketak: Tarsila de Amaral, Barbara Kruger, Marck Leckey eta María Helena Vieria da Silva, besteak beste.
- Film eta bideo aretoaren programazio hasiera.
- In situ proiektua, museo honetarako espresuki egiten diren artelanak dira.

**Web-orria: https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## EUSKAL MUSEOA

**Museo hau itxita dago**
**handitze-lanak amaitu arte**

**Non? Bilboko Alde Zaharrean**

Museo honek historia eta gizartearen kultura aztertzea (etnografia) lantzen ditu.

**2025eko programazioa**
Hainbat gunetan goza daitekeen
"Kameratik orratzera" erakusketa.
Lehenengoa, Bilboko Ondare Aretoan izango da.

**Web-orria: https://www.euskalmuseoa.eus/**
**Irisgarritasun-neurriak**

## BILBOKO BERREGINEN MUSEOA

**Non? San Frantzisko auzoan,**
**Mariaren Bihotzaren eliza zaharra zegoen tokian.**

Museo honetan zenbait maisulanen berreginak ikus daitezke.

**2025eko programazioa**
"AMA" erakusketa.
Artearen bidezko amatasunari buruzko elkarrizketa da.

**Web-orria: https://www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**





## MARIAREN BIHOTZA PLAZAKO AZTARNATEGIA

**Non? Bilbo Zaharrean,**
**Mariaren Bihotza plazaren azpian.**
Bilbao Bizkaia Museoen egoitzatik sar daiteke,
Mirasol Kondearen kalea, 2.

XV. mendeko San Frantzisko komentuaren
aztarnak bisita daitezke.

**Web-orria: https://www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/eu/ikusi/aztarnategia/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## ITSASMUSEUM BILBAO

**Non? Euskalduna ontziola historikoaren**
**eta Olabeagako dikeen gainean.**

Bilboko itsasadarretik Bizkaiko Golkora doan
itsas kultura babestea eta hedatzea du helburu.

Museo barruan erakusketa historiko iraunkorra dago
eta kanpoan zenbait ontzi daude.
Gainera, halako jarduerak egiten dira:
haurrentzako tailerrak, bisita gidatuak
eta “escape room” edo ihes-gela.

**Web-orria: https://itsasmuseum.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBAO ELEIZ MUSEOA

**Non? Atxuriko auzoan,**
**domingotarren Enkarnazio komentu zaharrean**

Ikusgai ditu pintura eta eskultura zaharrak eta modernoak, objektu erlijiosoak eta metalarekin egindako artelanak (urregintza).

**Web-orria: https://eleizmuseoa.com/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**

## PASIO-IRUDIEN MUSEOA

**Non? Iturribide kalean**

Museoan ikusgai daude Aste Santuko prozesioetan Kristoren Pasioaren Bide Gurutzeko pauso batzuk.

**Web-orria: https://www.museodepasosbilbao.com/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**

## BIZKAIKO ARKEOLOGIA MUSEOA

**Non? Zazpi Kaleetan,**
**Mallonako eskaileren ondoan**

Museoak Bizkaiko historia erakusten du historiaurretik biztanleek utzi dituzten aztarnen bidez.

Baita ere ikerketa arkeologikoak sustatzen ditu antzinako materialen aztarnetatik abiatuta eta antzinako material horiek gordetzen, mantentzen eta zaharberritzen direla ziurtatzen du.

**Web-orria: https://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/detalleContenido.asp?t=1&id=68&idioma=EU**
**Irisgarritasun-neurriak**



## ATHLETIC CLUB MUSEOA

**Non? San Mames futbol-zelaian, Basurtu auzoan**

Museoak Athletic, legendako klubaren historia ezagutzeko aukera ematen du.

**Web-orria: https://sanmames.athletic-club.eus/museo/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## ZEZEN MUSEOA

**Non? Vista Alegre zezen-plazan, Ametzola auzoan**

1995ean inauguratu zen, eta tauromakiaren historia kontatzen du argibide-testuen bidez.

**Web-orria: http://www.bilbao.bmftoros.com/plaza/bilbao/**



itzuli

*ARTE*
# BISUALAK

Arte bisualak batez ere ikusmenaren bidez hautematen diren adierazpen artistikoak dira. Arte bisual nagusietako batzuk dira: pintura, arkitektura, argazkilaritza eta arte digitala.



## BILBOARTE FUNDAZIOA

### Zer eskaintzen du?

Artistentzako ekoizpen artistiko profesionaleko
zentroa da.
Eskaintzen ditu grabatu, serigrafia, eskultura,
filmazio, grabaketa, argazkigintza,
edizio eta inprimatze tailerrak
eta material digitalak egiteko laboratategia.

Proiekzio-gela bat, ekoizpen estudioa
eta hainbat areto eta espazio ere baditu.
Abandoibarran, Uribitarte 40 erakusketa-aretoa du.
Espazio horrek lanak eta materialak biltegiratzeko ere balio du.

**Web-orria: https://bilbaoarte.eus/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**

## REKALDE ARETOA

### Zer eskaintzen du?

Aldi baterako erakusketak munduko hainbat tokitako
egungo sorkuntza artistikoak
ezagutarazteko eta hedatzeko.
Areto hau 1991n sortu zen.
Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du.

**Web-orria: https://www.salarekalde.bizkaia.net/**

**Irisgarritasun-neurriak**





## AZKUNA ZENTROA – ALHÓNDIGA BILBAO
## Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa

**Zer eskaintzen du?**

Hainbat erakusketa eta formatu dituen programazioa.
2025ean, sorkuntzari laguntzeko Babestu programako lanak gozatu ahal izango dira, beste proiektu batzuen artean.

**Web-orria: https://www.azkunazentroa.eus/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## BASQUE DOK FESTIVAL VI. EDIZIOA
## Euskadiko Irudi Garaikidearen Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Urriaren 23tik 26ra**

**Non? Azkuna Zentroan**

**Zer eskaintzen du?**

Jaialdi honek egungo argazkigintza dokumentala ezagutzera ematen du,
eta hausnarketarako eta eztabaidarako gonbita egiten du.
Antolatzen dira hitzaldiak, mahai-inguruak, erakusketak, eskolak profesionalekin, tailerrak, proiekzioak, dokumentazio aukeraketa eta sari-banaketak.

Jaialdia antolatzen dute UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak, Kulturbegi kooperatiba elkarteak eta Blackkamera argazkigintza-eskolak.

**Web-orria: https://basquedokfestival.com/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## BIDEOTIKAN
## Arte Digitalaren Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Azaroaren 3tik 23ra**
**Non? Kalean, hiriko hainbat lekuta**

### Zer eskaintzen du?

Jaialdi honek hiria bihurtzen du
kalean paseatzen ari den publikoari irekitako
arte birtualeko galeria.

Gaur egungo teknologia-artearen lan digitalak proiektatzen dituzte
hiriko leku esanguratsuetan jartzen diren pantaila handietan.
Ikus-entzunezko tailerrak eta emanaldiak (performance)
ere eskaintzen dituzte.

**Web-orria: https://bideotikan.art/eu/**



## MEM JAIALDIA
## Arte Esperimentalaren Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Azaroan**

**Zer eskaintzen du?**

Euskadiko eta nazioarteko artistek sortutako ikus-entzunezko artearen egungo proiektu berritzaileak, instalazioak, soinu-artea, kontzertuak, performanceak, dantza, zinema eta bideoak.

Jaialdi hau duela 20 urte baino gehiago egiten da sortzaileen eta publikoaren arteko topaketa eta harremana ahalbidetzen du.

**Web-orria: http://www.musicaexmachina.com/**



## FIG BILBAO
## Paper Arte eta Grabatuaren Nazioarteko 14. Jaialdia

**Noiz? Azaroko bigarren hamabostaldian**
**Non? Euskalduna Jauregian**

**Zer eskaintzen du?**
Paperean egindako grabatuz eta marrazkiz osatutako egungo lan grafikorik onenen aukeraketa.
Jaialdi honetan arte-galeriek, edizioko profesionalek museoek eta kultura-erakundeek hartzen dute parte.

Jaialdiaren programazioan jarduera desberdinak egiten dira: tailerrak, hitzaldiak eta zuzeneko erakustaldiak.

**Web-orria: www.figbilbao.com**
**Irisgarritasun-neurriak**



# SORMENEZKO
## *DISEINUA ETA INDUSTRIAK*

Sormenezko industriak kultura- eta sorkuntza-produktuak eta zerbitzuak sortzea, hedatzea eta saltzea helburu duten enpresek, erakundeek eta jarduerek osatzen dituzte.

Sormenezko industriei esker kulturarekin eta sorkuntzarekin zerikusia duten enpleguak sor daitezke.
Baita kultura- eta sorkuntza-produktu eta zerbitzu gehiago egotea ere ahalbidetzen dute.



## OPEN GUNEA

**Non? Zorrotzaurren, Artiach fabrika zaharrean**

**Zer eskaintzen du?**

Kultura-zentro honek egungo kultura, teknologia eta gizarte-berrikuntza elkartzea bultzatzen du.

Sorkuntza eta fabrikazio digitaleko zentroa dauka. Beste proiektu batzuk ere baditu: sorkuntzan laguntzeko egonaldiak eta Vintage Bilbao, bigarren eskuko asteroko azoka.

**Web-orria: https://espacioopen.com/**



## DENDAZ, This is Basque Design

**Non? Azkuna Zentroan**

**Zer eskaintzen du?**

Sormenezko diseinua eta industriak sustatzeko gunea da.

Denda honetan, diseinatzaileek tokiko baliabideekin ingurunea eta ingurumena errespetatzen dituzten kalitatezko artisau-produktuak egiten dituzte.

**Web-orria: https://dendaz.azkunazentroa.eus/pages/dendaz**

**Irisgarritasun-neurriak**





## IF DESIGN STUDENT AWARD 2025

**Noiz? Ekainaren 19an eta 20an**
**Non? Guggenheim Bilbao Museoan**

**Zer eskaintzen du?**
Gazte talentuentzako nazioarteko diseinu sari ospetsuenak banatzeko ekitaldia da.

If Design eta Euskal Diseinuaren Elkartea (EIDE) erakundeek antolatzen dituzte sari hauek. Aurten ere Bilboko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango du.

Otsailaren 5a da 2025eko If Design Award sarietan izena emateko azken eguna.

**Web-orria: https://ifdesign.com/es/if-design-student-award**
**Irisgarritasun-neurriak**

## BILBAO BIZKAIA DESIGN WEEK

**Noiz? Azaroan**
**Non? Ensanche eraikinean eta beste toki batzuetan**

### Zer eskaintzen du?

Euskadiko sormenezko diseinuaren eta industrien
hitz-ordu handia da.
Esperientzia aparta da profesionalentzat
eta arte-espezialitate horiek maite dituztenentzat.

Ekitaldi honetan egiten dira hitzaldiak, mahai-inguruak,
erakusketak, performanceak, desfileak,
tailerrak eta talde-lanerako topaketak.

2014. urtetik antolatzen da ekitaldi hau.
Aurten, 11. edizioa izango da.

**Web-orria: https://www.bilbaobizkaiadesignweek.eus/**



## SELECTED 25 EUROPE

## Diseinuaren eta Sormenaren Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Azaroaren 27an eta 28an**
**Non? Bilboko Elkarte Filarmonikoan**

### Zer eskaintzen du?

Diseinu jaialdi honek ardatz ditu
berrikuntza, tokiko baliabideen aprobetxamendua,
ingurunearen zaintza eta diseinuak gizartean duen eragina.

Selected 25era joango dira estatuan
eta nazioartean sortzaileen diren pertsonak.
Jaialdi hau eredua da sorkuntza, diseinu
eta ilustrazioko ikasleentzat eta profesionalentzat.

**Web-orria: https://selectedinspiration.com/hasiera**
**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBAO MAKER FAIRE
## Sormen Teknologien Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Azaroan eta abenduan**

**Zer eskaintzen du?**

Bertako, estatuko eta nazioarteko
mota guztietako proiektuen erakustaldiak
teknologien sormenezko erabileraren inguruan.

Parte bat azoka zientifikoa
eta bestea artearen jaialdia duen ekitaldia da.
2013. urtetik ospatzen da Bilbon.
Sarrera librea eta doakoa da.

**Web-orria: https://bilbao.makerfaire.com/**



## BIG C. Bilbao International Games Conference

**Noiz? Abenduan**
**Non? Euskalduna Jauregian**

**Zer eskaintzen du?**

Bideo-jokoekin zerikusia duten hitzaldiak,
tailerrak, mahai-inguruak
eta arrakasta izan duten proiektuak.

Jaialdi honek bideo-jokoen ekoizpen, zuzendaritza
eta garapen artisten eta profesionalen
lana aitortzen eta bultzatzen du.
Bertan mundu osoko profesionalek parte hartzen dute.

Baita urtean behin “Indie Burgers Awards” topaketa
eta “BIG Indie Contest” lehiaketa independentea ere
hartzen ditu.

**Web-orria: https://www.bilbaogamesconference.com/**

**Irisgarritasun-neurriak**



# LITERATURA, GIZARTEA ETA EZAGUTZA



## BILBOKO UDAL LIBURUTEGIEN SAREA

Bilbon, 17 udal liburutegi daude:

- **Bidebarrietako liburutegi nagusia**
  **Irisgarritasun-neurriak**



- **Begoña eta Deustu barrutietako liburutegiak**
  **Irisgarritasun-neurriakk**



- **Basurtu, Castaños, Ibaialde, Irala, Otxarkoaga, Errekalde, San Frantzisko, Zabala eta Zurbaranbarri Auzoetako liburutegiak**
  **Irisgarritasun-neurriakk**



- **Zazpikaleetako haur liburutegia**
  **Irisgarritasun-neurriak**



- **San Ignazio eta Zorrotza auzoetako liburutegiak**
  **Irisgarritasun-neurriakk**



- **San Adrian auzoko liburutegia**
  **Irisgarritasun-neurriak**



- **Buiako zerbitzu-gunea**

## Zer eskaintzen du?

500.000 elementutik gorako bilduma bat.
Bilduma horretan daude: liburuak, komikiak, prentsa eta aldizkariak, filmak DVD formatuan, musika CDak, bideo-jokoak, mahai-jokoak…
Bilduma liburutegian bertan kontsulta daiteke, edo kanpora atera egun batzuetan zehar, maileguan eramanda.

Gainera, programa betea dauka adin guztietako pertsonentzako 400 jarduera baino gehiagorekin.

Helduentzat: irakurketa tailerrak, hitzaldiak, erakusketak eta bisita gidatuak.
Haurrentzat eta gazteentzat: ipuin-kontalariak, magia, txotxongiloak, idazleekin topaketak eta tailerrak.

**Web-orria: https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1272990835442&language=eu&pagename=BibliotecasMunicipales%2FPage%2FBMB_Inicio**







## BIDEBARRIETA KULTURGUNEA

**Non? Bidebarrietako liburutegiaren barruan**

**Zer eskaintzen du?**

- Topaketak, eztabaidak, zikloak, jardunaldiak, errezitaldiak eta emanaldiak.
- Elkarrizketak idazle ospetsuekin, poesia errezitaldiak eta liburuen aurkezpenak.
- Aitorpen-egunak Blas de Otero, Miguel de Unamuno, Gabriel Aresti eta Ángela Figuera idazleei.
- Topaketa zientifikoak eta matematikari buruzko jardunaldiak.
- Kulturari eta pentsamenduari buruzko eta emakume zientzialarien ekarpenari buruzko zikloak.

**Web-orria: https://bilbaokultura.eus/bidebarrieta-kulturgunea/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

**Non? Zabalgunean**

**Zer eskaintzen du?**

Bizkaiko lurraldeari buruz aritzen diren materialak zaintzeko eta zabaltzeko gunea.

3.000 elementu inguruko bilduma du: liburuak, esku-orriak, orri solteak, aldizkako argitalpenak, eskuz egindako idazlanak eta XV. mendean sortutako materialak.

**Web-orria: www.bizkaia.eus/foruliburutegia**

## MEDIATEKA BBK

**Noiz? Azkuna Zentroan**

**Zer eskaintzen du?**
Sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako
eta esperimentaziorako gunea da.

Bertako bilduma eta jardueren programazioa
zentroko kultura-jarduerarekin lotuta dago.
Adin eta kolektibo desberdinetako pertsonek
parte har dezaten pentsatuta daude.

**Web-orria: https://www.azkunazentroa.eus/eu/mediateka-bbk/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## UDAL ARGITALPENAK

2025ean, argitaratuko dira
Bilboko Udalak antolatutako literatura-lehiaketa hauen
lan irabazleak:

- 2023ko eta 2024ko Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa, euskaraz eta gaztelaniaz.
- 2024ko Blas de Otero - Ángela Figuera Poesia Saria, euskaraz eta gaztelaniaz.
- 2024ko Miguel de Unamuno Saiakera Saria, euskaraz eta gaztelaniaz.

## LITERATURA SARIKETAK

Bilboko Udalak literatura-sariketa hauek
iragarri ditu:

- **Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa.**
  **Noiz?** Urtarrilaren 15etik martxoaren 30era.
- **Miguel de Unamuno Saiakera Saria.**
  **Noiz?** Otsailaren 15etik apirilaren 30era.
- **Blas de Otero - Ángela Figuera Poesia Saria.**
  **Noiz?** Martxoaren 15etik maiatzaren 30era.

**Web-orria: https://bilbaokultura.eus/bidebarrieta-kulturgunea/**

## RAFAEL MIKOLETA IPUIN LEHIAKETA

Euskaraz irakurtzea eta idaztea sustatzeko lehiaketa.
Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat da.

Ipuinak aurkezteko azkeneko eguna urtarrilaren azkeneko barikua da.

**Web-orria: https://bilbaoeuskaraz.bilbao.eus/**

## BIZKAIDATZ LITERATURA LEHIAKETA XVII. EDIZIOA

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen lehiaketa sormena bultzatzeko.

**Web-orria: www.bizkaia.eus/foruliburutegia**



## BIZKAIDATZ TXIKIA LITERATURA LEHIAKETA XI. EDIZIOA

**Noiz?**
Lanak emateko azken eguna:
**otsailaren 13a.**

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen lehiaketa literatura-sorkuntza bultzatzeko ikastetxeetako ikasleen artean.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte har dezakete, gehienez 16 urte arte.

**Web-orria: www.bizkaia.eus/foruliburutegia**



## BIZILABE

**Non? Zorrotzako eta Otxarkoagako Gaztegunean, Esperantzan, Basurtuko Markegunean, Deustuko Udaltegian**

**Zer eskaintzen du?**

Zientzia- eta teknologia-aisialdi jarduerak,
10 eta 16 urte bitarteko haurrentzat eta gazteentzat.
Jarduera horietako batzuk dira: esperimentuak,
zientzia eta teknologiako enpresetara bisitak,
ikertzaileekin tailerrak eta topaketak.
Elhuyarrek eta Bilboko Udalak antolatzen dute.

**Web-orria: https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/bizilabe-bilbo?set_language=eu**



## "EMAKUMEAK ZIENTZIALARI ETA TEKNOLOGO" ERAKUSKETA

**Noiz? Otsailaren 4tik 11ra**
**Non? Zabalgunean**

**Zer eskaintzen du?**

Erakusketa honek zientzia eta teknologiaren
munduko 12 emakumeren ilustrazioak izango ditu.

Erakusketa hau Elhuyarrek
eta Bilboko Udalak antolatzen dute
Emakume eta neska zientzialarien
Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Gainera, otsailaren 3tik 11ra,
Bilboko dendek emakume zientifiko baten lana
erakutsiko dute erakusleihoetan.
Eta ginkana batean parte hartu ahal izango da.

**Web-orria: https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/otsailak-11?set_language=eu**

## GUTUN ZURIA BILBAO
### Letren Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Otsailaren 25etik martxoaren 1era**
**Non? Azkuna Zentroan**

**Zer eskaintzen du?**
Hitzarekin, irakurketarekin, literaturarekin eta egungo artearekin lotutako jarduera berritzaileak egiteko topagunea.

Bertako eta nazioarteko sortzaileek parte hartzen dute urtero jaialdi honetan.

**Web-orria: https://www.azkunazentroa.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## PI EGUNA

**Noiz? Martxoaren 14an**
**Non? Bizkaia aretoan**

**Zer eskaintzen du?**
Matematikari buruzko hitzaldi laburrak.

**Web-orria: https://naukas.com/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBAO POESIA

### Poesiaren 26. astea

**Noiz? Martxoaren 15etik 23ra**
**Non? Bidebarrietako liburutegian**

**Zer eskaintzen du?**
Nazioarteko poeta ospetsuen irakurketak eta errezitaldiak.

Bestelako jarduerak ere egongo dira: topaketak idazleekin, hitzaldiak, kontzertuak eta liburu-aurkezpenak.

**Web-orria: https://bilbaokultura.eus/bidebarrieta-kulturgunea/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## LIBURU-AZOKAK

Euskadiko Liburu Ganbarak azoka hauek antolatzen ditu Bilboko Udalarekin lankidetzan:

- Liburuaren Nazioarteko Eguna
  **Noiz? Apirilaren 23an**
  **Non? Berastegi kalean**

- Liburu Berrien Azoka
  **Noiz? Maiatzaren 30etik ekainaren 9ra**
  **Non? Areatzan**

- Liburu Zaharren eta Aukerako Liburuen Azoka
  **Noiz?** Urriaren 17tik azaroaren 2ra
  **Non?** Areatzan

**Web-orria: https://liburuganbara.eus/eu/**



## ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA

**Noiz? Maiatzaren 21etik 24ra**

**Non? Areatzako kaian**

**Zer eskaintzen du?**

Euskadiko ikastetxe guztietako DBHko eta Batxilergoko gazteek eta irakasleek euskaraz egindako zientzia-proiektuak ezagutzera ematen ditu.

Proiektu honi esker ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa hurbiletik ikusi daiteke. Elhuyarrek aholkuak ematen ditu.

Azokan lanak ebaluatuko dira. Sariak maiatzaren 24an banatuko dira.

**Web-orria: https://zientzia-azoka.elhuyar.eus**



## KLASIKOEN ETENGABEKO IRAKURKETA

**Noiz? Ekainean**

**Non? Arriaga Antzokian**

**Zer eskaintzen du?**

Idazle ezagun baten euskarazko lanaren etengabeko irakurketa egiten da.

Hautatutako idazleari buruzko hitzaldiak ere egiten dira Euskaltzaindiaren egoitzan.

**Web-orria: https://bilbozaharra.eus/forum-eta-irakurraldia/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## JA! BILBAO

## Umorezko Literaturaren eta Artearen Nazioarteko 16. Jaialdia

**Noiz? Urrian**

**Zer eskaintzen du?**

Askotariko programa duen
umorean espezializatutako jaialdia.

Gune bat du hausnarketarako eta dibertsiorako,
hainbat gaiei buruzko elkarrizketak,
egileei elkarrizketak, erakusketak,
lehiaketak eta emanaldiak.

Europan umorean espezializatuko
jaialdi bakarra da.

**Web-orria: https://jafestival.com/eu/**

## URBANBATFEST

**Noiz? Urrian**

**Zer eskaintzen du?**

Arkitektura, hirigintza eta gizarte-berrikuntzaren bitartez
hiriko eraldaketak aztertzen dituen kultura jaialdia da.

Formala eta informala,
teoria eta praktika, zaharra eta berria
elkartzen diren guneak bilatzen ditu.

**Web-orria: https://urbanbat.org/eu/**





## NAUKAS BILBAO

**Noiz? Azaroaren 19tik 21era**
**Non? Euskalduna Jauregian**

**Zer eskaintzen du?**
Zientzia-dibulgazio ekitaldia jardueren bidez ezagutza publikoari oro har irisgarri egiteko.

Naukas duela 15 urtetik ospatzen da eta 3 atal ditu:

- Bere proiektuak azaltzen dituzten ikertzaileak.
- Zientziarekin lotutako historiak azaltzen dituzten zientzialariak.
- Haurrei zuzendutako tailerrak, hitzaldiak eta jarduerak.

**Web-orria: https://naukas.com/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBOKO X. ARTE LIBURU AZOKA (BALA)
## Bilbao Art Book Fair

**Noiz? Abenduaren 11tik 14ra**

**Zer eskaintzen du?**
Artistek liburuak editatzeko modu berriak ikertzen eta erakusten dituzten azoka. Azoka honetan, paperezko edizioaz gain, liburuak editatzeko beste modu batzuk probatzen dira.

Aurten, BALAk 10 urte betetzen ditu eta jarduerez eta pertsona gonbidatu bereziz betetako azoka ospatzen du.

**Web-orria: http://www.banizunizuke.com/bala/**





# IKUS-ENTZUNEZKOAK



## BILBAO BIZKAIA FILM COMMISSION

**Zer eskaintzen du?**
Bilbora eta Bizkaira zinemako, telebistako
eta publizitateko filmaketak erakartzeko proiektua.

Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren
ekimena da, gure lurraldera dirua erakartzeko
eta Bizkaian ikus-entzunezkoen sektorea sendotzeko.

**Web-orria: http://www.bifilmcommission.com/eu/**



## FAS ZINEKLUBA

**Noiz? Urtarriletik ekainera eta urritik abendura, martitzenetan 19:45ean**
**Non? Indautxu aretoan**

**Zer eskaintzen du?**
Filmak jatorrizko bertsioan
eta gaztelaniazko azpitituluekin
eta klasiko handiak ematen dituen aretoa.

Filmen emanaldien ostean, solasaldi bat dago.

FASek dokumentazio-liburutegi bat
eta zinema-aholkularitzako zerbitzu bat ditu
Olabeagako udaltegian.

**Web-orria: https://www.cineclubfas.com/?lang=eu**
**Irisgarritasun-neurriak**



## ZINEMATEKA

**Non? Azkuna Zentroan**

**Zer eskaintzen du?**
Zinema klasikoari eta egungo zinemari buruzko programazio egonkorra.

**Web-orria: https://www.azkunazentroa.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## ONGI ETORRI ZINEMA

### Kulturarteko gizarte baterako zinema- eta hausnarketa-zikloa. Giza eskubideak, antiarrazakeria eta aniztasuna

**Non? Hika Ateneon**

**Zer eskaintzen du?**
Gure gizartea eraldatzeko
eta tolerantzia sustatzeko
zinema zikloa eta topaketetarako
eta hausnarketarako gunea.

Gai hauek jorratzen dira: immigrazioa,
asiloa, aterpea, mugak eta kultura-aniztasuna.

**Web-orria: https://hikaateneo.eus/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## LABORAL KUTXA BILBAO SURF FILM FESTIVAL

**Noiz? Otsailaren 28tik martxoaren 3ra**
**Non? Itsasmuseumen**

### Zer eskaintzen du?

Surfarekin lotutako nazioarteko zinema lehiaketa.
Film laburrak, dokumentalak eta filmak
ikus daitezke.

Gainera, eskaintzen ditu surf jasangarriari
buruzko jardunaldiak, kontzertuak, tailerrak
eta surf-oholen argazkien erakusketak
eta arte-erakusketak.

**Web-orria: https://bilbaosurffilmfestival.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## SILVER FILM FESTIVAL

**Noiz? Martxoan**
**Non? Campos Elíseos Antzokian eta beste kokapenetan**

### Zer eskaintzen du?

55 urtetik gorako pertsonekin lotutako zinemaldia.

Sakon jorratzen ditu gai hauek bezalakoak:
adinagatiko diskriminazioa (adinkeria)
edo "bizitza-luzera berria", hau da,
pertsonak denbora gehiago bizi direla.

Zinema-emanaldiez gain,
zinemaldiak jarduera gehiago ere baditu.

**Web-orria: https://www.silverfilmfestival.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## FANT 31
## Bilboko Zinemaldi Fantastikoa

**Noiz?** **Maiatzaren 2tik 10era**
**Non?** **Golem Alhóndiga Zinemak - Azkuna Zentroan**

### Zer eskaintzen du?

Zinemaldi honetan fantasiazko zinemaren
nobedadeak eta film klasikoak ematen dira.

Fantasiazko maisuei omenaldiak
haurrentzako saioak, film laburren saioak egiten dira
eta dokumentalak ere ematen dira.
Gainera, zenbait sari ematen dira.

Aurten, FANTek 31 urte beteko ditu.

**Web-orria: https://www.fantbilbao.eus/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**

## ZINEMAGILEEN ARTEAN
## Emakumeek egindako zinemaren 14. karabana

**Noiz?** **Maiatzean**
**Non?** **Golem Alhóndiga Zinemak - Azkuna Zentroan**

### Zer eskaintzen du?

Herrialde desberdinetako emakumeek
zuzendutako fikziozko filmen
eta dokumentalen aukeraketa.

Emakumeek egindako zinema erakusketa hau
2008an sortu zuen Amal Ramsis egiptoar zinemagileak.
Munduko hainbat lekutan ematen da.

Bilboko erakusketa Kultura Communication Desarrollo
KCD-ONGD erakundeak antolatzen du,
Klaketa Árabe ekoiztetxe egiptoarraren laguntzarekin.

**Web-orria: https://www.kcd-ongd.org/caravana?lang=eu**

**Irisgarritasun-neurriak**





## NAZIOARTEKO BIDEOKLIPEN ETA FILM LABURREN 23. CAOSTICA JAIALDIA

**Noiz?** **Ekainean**
**Non?** **Bilborocken**

### Zer eskaintzen du?

Astebetez, zinema, musika eta bestelako jarduerak: nazioarteko adituekin eskolak, erakusketak, kontzertuak eta DJ & VJ (bideoa musikarekin nahasten duten pertsonak) saioak.

**Web-orria: www.caostica.com**
**Irisgarritasun-neurriak**

## ZINEGOAK 2025
## Bilboko LGTBIQ+ Zinemaren eta Arte Eszenikoen Nazioarteko XXII. Jaialdia

**Noiz?** **Ekainaren 23tik 30era**
**Non?** **Hiri osoan zehar**

### Zer eskaintzen du?

Sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko filmak, antzezlanak, hausnarketarako guneak, eztabaidak, topaketak eta hitzaldiak.

**Web-orria: https://zinegoak.com/EU/**





## 15. GIZAZINEA

**Noiz?** **Urrian**
**Non?** **Bilborocken**

### Zer eskaintzen du?

Gizartearen eta gizakiaren errealitate desberdinak publikoari hurbiltzeko programazioa, zinemaren, antzerkiaren, performancearen, musikaren, argazkigintzaren, pinturaren eta dantzaren bidez.

Gizazinearen helburua da balioetan oinarritutako hezkuntza eta giza eskubideak artearekin eta ikus-entzunezko proiekzioekin lotzea.

**Web-orria: www.caostica.com/gizazinea**
**Irisgarritasun-neurriak**



## FILM SOZIALAK

### Bilboko Nazioarteko Zinema Ikusezinaren 17. Jaialdia

**Noiz?** **Urriaren 16tik 23ra**
**Non?** **Golem Alhondiga Zinemak - Azkuna Zentroan**

### Zer eskaintzen du?

Gai hauei buruz eztabaida sortzen duten filmak: garapen jasangarria, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna, giza eskubideak, migrazioa, sexu-aniztasuna eta desgaitasuna.

Jaialdiaren helburua da gizarte inklusiboagoak, bidezkoagoak eta ingurunearekin konpromisoa hartzen duten gizarteak sortzea.

**Web-orria: https://www.kcd-ongd.org/cine-invisible?lang=eu**
**Irisgarritasun-neurriak**



## FESTIVAL BIDEODROMO

### Zinema Esperimentalaren Nazioarteko Jaialdia

**Noiz? Urrian**

**Zer eskaintzen du?**

Iraupen eta grabazio-formatu guztietako
lan esperimentalen proiekzioa.
Fikziozko, ez-fikziozko, saiakerazko, dokumental,
artezko edo animaziozko lanak izan daitezke.

Jaialdi honen helburua da ikusleek ikus ditzatela
gaur egungo lan esperimentalak, kalitate onekoak
eta estilo, forma eta nazionalitate desberdinetakoak.

**Web-orria: www.bideodromo.com**

## ZINEMAKUMEAK GARA!

**Noiz? Urrian**
**Non? Hainbat kokapenetan**

**Zer eskaintzen du?**

Munduko emakume zinemagileen lanak
ikusarazten dituen zinema erakusketa.

Urtean behin, zinemaldi honek
Simone de Beauvoir saria ematen die
zinemaren arloan nabarmentzen diren emakumeei.
Bihargi EITB Saria ere ematen die
euskal zineman lanean hasten diren emakumeei.

**Web-orria: https://zinemakumeak.com/eu**





## THINKING FOOTBALL FILM FESTIVAL

**Noiz?** **Urrian**
**Non?** **BBK Salan**

### Zer eskaintzen du?

Arretaz egindako filmen eta dokumentalen aukeraketa futbolak gaur egungo gizartean duen eraginari buruz.

Athletic Club Fundazioak antolatzen du.

**Web-orria: https://thinkingfootballfilmfestival.com/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBAO SERIESLAND JAIALDIA
### Euskal Herriko Serie eta Eduki Digitalen Nazioarteko Jaialdia

**Noiz?** **Azaroan**
**Non?** **Bilborocken eta beste kokapenetan**

### Zer eskaintzen du?

Eduki digitalen jaialdia.
Proiekzioak ikus daitezke, hitzaldiak eta egungo ikus-entzunezkoen aurrerapenak erakusten dituzten ekitaldiak.

Jaialdi honetan teknologia berriena dago, adimen artifiziala, errealitate birtuala, proiektu interaktiboak, podcastak, youtuberrak, influencerrak, eta eduki digitalekin lotutako beste formatuak.

**Web-orria: https://www.seriesland.eus**



## ZINEBI

## Bilboko 67. Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Zinemaldia

**Noiz? Azaroan**

**Non? Golem Alhondiga Zinemak - Azkuna Zentroan, Guggenheim Museoan, BBK Salan, Arriaga Antzokian**

### Zer eskaintzen du?

Dokumentalen eta film laburren kategoriako Espainiako A klaseko nazioarteko jaialdi bakarra da. A klasea da Film Ekoizleen Elkarteen Nazioarteko Federazioak ematen duen maila gorenena.

Jaialdi honek hasten ari diren egileei laguntzen die.

Zinemaldi honen ekitaldi nagusiak dira:

- Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa
  - Sail Ofiziala: dokumentalei, animazioari eta fikzioari eskainia.
- ZIFF- ZINEBI First Film Sail Ofiziala, lehen film luzea sortzen duten egileei eskainia.

**Web-orria: https://zinebi.eus/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## 10. HOMELESS FILM FESTIVAL

**Noiz?** **Azaroaren 12an eta 13an**
**Non?** **Bizkaia Aretoan**

**Zer eskaintzen du?**
Etxerik gabeko pertsonei laguntzeko eta gizarte-inklusioaren inguruan sentsibilizatzeko zinemaldia.
Zinemaldi honetan ematen diren film laburrak etxerik gabeko pertsonekin grabatu dira bizi dituzten errealitateak ezagutarazteko.

Zinemaldi hau Manchesterren jaio zen 2011n, eta Bizitegi elkarteari esker egiten da Bilbon.

**Web-orria: https://homelessfestival.org/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## 13. TRACKING BILBAO

**Noiz?** **Azaroan**
**Non?** **BBK Salan, Bilborocken**

**Zer eskaintzen du?**
Kulturari eta Interneti buruzko jardunaldiak askotariko jarduerekin:
tailerrak, podcastak eta show-ak.

Jardunaldi hauen helburua da Interneten erabilerarekin hezkuntza irakasgai desberdinek dituzten aukera berriak erakustea.

**Web-orria: www.trackingbilbao.com**
**Irisgarritasun-neurriak**



## BBK MENDI FILM BILBAO BIZKAIA 2025
## Bilboko Nazioarteko Mendi Zinemaldia

**Noiz?** **Abenduan**
**Non?** **BBK Salan, Euskalduna Jauregian, Golem Alhondiga Zinemak - Azkuna Zentroan**

### Zer eskaintzen du?

Zinemaldi honek aurkezten ditu nazioarteko nobedadeak mendiko, abenturako, muturreko kiroletako eta naturako zineman.

Helburua du mendiko zinema eta naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzea.

**Web-orria: https://mendifilmfestival.com/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## ANIMAKOM FEST
## Bilboko Animaziozko Zinemaren Nazioarteko 9. Jaialdia

**Noiz?** **Abenduan**
**Non?** **Bilborocken**

### Zer eskaintzen du?

Nazioarteko animaziozko zinemaren lanik onenen aukeraketa.

Film laburrak 4 sailetan sailkatuta daude: profesionalak, ikasleak, euskal film laburrak eta bideoklip animatuak.
Baita nazioarteko zinemaldietako lanak egoten dira, emakumeek zuzendutako film laburretan arreta berezia jarrita.

**Web-orria: https://animakom.com/eu**
**Irisgarritasun-neurriak**



# MUSIKA



## OAL BILBAO MUSIKA TEA
## Udal Musika Eskola

**Non?** **Sorkunde kalea, 8, Ibaiondon**

**Zer eskaintzen du?**
Instrumentuak jotzen eta abesten ikasteko prestakuntza.
Kontzertuak, kalejirak, erromeriak eta tailerrak ere eskaintzen ditu.

Eskola honen helburua da musika-zaletasuna bultzatzea eta zabaltzea.

**Web-orria: https://www.bilbaomusika.eus/**



## UDAL MUSIKA BANDA

**Zer eskaintzen du?**
Ekitaldi ofizialetan, auzoetako kontzertuetan eta Areatzako kioskoan jotzen du.
Musika Banda Bilboko kultura-jardueraren adibide nabarmenetako bat da.

Azpimarratzekoa da Euskalduna Jauregian, Azkuna Zentroan, Arriaga Antzokian eta J.C. Arriaga kontserbatorioan duen kontzertuen denboraldia.
Kontzertu horien programak genero eta estilo ugari ditu.

**Web-orria: https://www.bilbaomusika.eus/**



## TXISTULARIEN UDAL BANDA

### Zer eskaintzen du?

Musika jarduera zabala eta askotarikoa.
Jarduera nabarmenenak dira:

- Euskalduna Jauregiko kontzertu-zikloa.
- Areatzako kioskoko udaberriko kontzertuak.
- Aste Nagusiko txistularien alardea.

Beste ekitaldi batzuetan ere parte hartzen dute: inaugurazio ekitaldietan eta taldeekin, musikako profesionalekin eta kultura- eta gizarte-eragileekin kolaborazioak.

**Web-orria: https://www.bilbaomusika.eus/**



## JUAN CRISÓSTOMO DE ARRIAGA MUSIKA KONTSERBATORIOA

**Non? Ibarrekolandan**

### Zer eskaintzen du?

Bilboko musika-irakaskuntzako zentro nagusia da, eta hari-instrumentuak egiten eta konpontzen (lutheria) ikasteko prestakuntza eskaintzen duen bakarra.

Programan musika- eta arte-ekitaldi ugari eta askotarikoak ditu.
Oso presente dago hiriko kultura-bizitzan.

**Web-orria: https://conservatoriobilbao.hezkuntza.net/eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBOROCK

**Non? Mesedeetako kaia 1, Ibaiondon**

**Zer eskaintzen du?**

Gazteak elkartzen diren
eta partekatzen duten zentroa.
Zentro honetan hainbat jarduera egiten dira:
musika, zinema, antzerkia, dantza,
laborategiak, hitzaldiak eta aurkezpenak.

Pertsonek interesen eta jakin-minen arabera,
harremanak izan, sortu, esperimentatu,
erakutsi eta parte hartu dezaketen lekua da.

**Web-orria: https://bilbaogazte.bilbao.eus/bilborock/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## BOSen DENBORALDI SINFONIKOA

**Non? Euskalduna Jauregian**

**Zer eskaintzen du?**

Bilboko Orkestra Sinfonikoak (BOS)
kontzertu ugarien programa
aurkezten du denboraldi guztietan,
Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntzari esker.

Hainbat motatako kontzertuak eskaintzen ditu:
orkestra handiarekin (sinfonikoak),
orkestra txikiagoarekin (ganberakoak),
kontzertu didaktikoak eta familia osoarentzat.

**Web-orria: https://www.bilbaorkestra.eus/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## BILBOKO ELKARTE FILARMONIKOA

**Non? Portuko Markesaren kalea, 2, Bilbon**

**Zer eskaintzen du?**

Kalitate handiko kontzertuak nazioarteko artista handiekin. Jarduera hauek ere eskaintzen ditu: artistekin topaketak, hitzaldiak eta irakurketa-klubak.

Elkarte filarmonikoa 1896an sortu zen. Bazkideen finantzaketari esker egiten du lan.

**Web-orria: https://www.filarmonica.org/**

**Irisgarritasun-neurriak**

## BILBOKO KORAL ELKARTEA

**Non? Felipe Serrate kalea, 2, Basurtun**

**Zer eskaintzen du?**

50 emanaldi baino gehiago hainbat estilorekin eta generorekin. Euskal talentua eta kultura bultzatzen ditu gure lurraldean bertan eta kanpoan.

Bilboko Koral Elkarteak musika koralarekin konprometitutako 200 korista, 400 ikasle eta 800 bazkide biltzen ditu.

**Web-orria: https://www.coraldebilbao.com/eu/**

**Irisgarritasun-neurriak**





## BILBOKO AKORDEOI ORKESTRA SINFONIKOA

**Zer eskaintzen du?**
Hainbat ikuskizun eta kontzertu
Amagoia Loroñoren zuzendaritzapean.

Gainera eskolak, Loroño Musikaltegiak,
haurrak, gazteak eta helduak hartzen ditu.

**Web-orria: https://www.bilbaoacordeon.org/**



## JAZZ-ON ARETOA

**Non? Urazurrutia kalea, 5, Ibaiondon**

**Zer eskaintzen du?**
Jazz kontzertuak ostegunero,
ostiralero eta larunbatero.
Kontzertu horietan euskal eta nazioarteko
artista garrantzitsuek jotzen dute.

Gainera, ziklo hauek antolatzen dituzte:
Impulso, Lithium, Berezia eta Swing Nights.
Baita profesionalek emandako eskolak,
musika-inprobisazio ekitaldiak (jam sessions)
eta Jazzon Fest eskaintzen dituzte ere.

**Web-orria: https://jazzonaretoa.com/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## BJC- BILBAINA JAZZ CLUB ELKARTEA

**Zer eskaintzen du?**
1991 geroztik, nazioarteko jazz-ekitaldiak Bilbon.

Bere ziklo ospetsua du, Auditorio,
eta maila handiko nazioarteko artistak
igarotzen dira bertatik.

**Web-orria: https://www.bilbainajazzclub.org/eu/**

## KAFE ANTZOKIA

**Non? Done Bikendi kalea 2, Bilbon**

**Zer eskaintzen du?**
Euskaldunen topagune eta euskal kulturaren
erreferentzia-gune nagusietako bat.

Zuzeneko musika jotzen den
Bilboko agertoki garrantzitsuenetako bat ere badu.

**Web-orria: https://www.kafeantzokia.eus/**

## MUSIKA-MÚSICA

**Noiz? Martxoaren 7tik 9ra**
**Non? Euskalduna Jauregian eta Arriaga Antzokian**

**Zer eskaintzen du?**
Bilboko Udalak antolatutako
musika klasikoko jaialdia.

Aurten, estatuko eta nazioarteko ospe handiko
orkestrak, taldeak eta interpreteak hartuko ditu.

Interpretatzaile gazteak ere egongo dira,
musika klasikoa gizartearen
sektore guztietara hurbiltzeko.

**Web-orria: https://musika-musica.bilbao.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**



## DAMBA FESTIVAL

**Noiz? Martxoan**

**Zer eskaintzen du?**
Arrazakeriaren aurkako kultura-jaialdia
San Frantzisko auzoan.

Jaialdi honek aniztasuna ikusarazi
eta elkarbizitza sustatu nahi du
musikaren, antzerkiaren eta dantzaren bidez.

Euskal RAP Elkarteak antolatzen du jaialdi hau,
martxoaren 21ean Arrazagatiko Diskriminazioaren
Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko.

**Web-orria: https://www.instagram.com/dambafestival/**





## BAS – BILBAO ARS SACRUM

**Noiz? Apirilean**
**Non? Enkarnazioaren elizan**

**Zer eskaintzen du?**
Erlijiozko eszenaren eta musikaren (sakroa) erakusketa,
Bilboko Udalarekin lankidetzan.

**Web-orria: https://musika-musica.bilbao.eus/**

## BBK BILBAO MUSIC LEGENDS FESTIVAL 2025

**Noiz? Ekainaren 13an eta 14an**
**Non? Bilbao Arenan**

**Zer eskaintzen du?**
Folk eta rock talde mitikoen emanaldiak.

Ekitaldi honek BBKren eta Bilboko Udalaren
babesa ditu.

**Web-orria: https://musika-musica.bilbao.eus/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**

## BILBAO BBK LIVE

**Noiz?** **Uztailaren 10etik 12ra**
**Non?** **Kobetamendin**

**Zer eskaintzen du?**
3 egunetan zehar, egungo musika talde nagusien zuzeneko kontzertu handiak:
Kylie Minogue, Pulp, Raye, Bad Gyal,
Michael Kiwanuka, Nathy Peluso,
Ca7riel & Paco Amoroso eta askoz gehiago.

BBK Live Last Tourrek antolatzen du
Bilboko Udalarekin lankidetzan
eta BBKren babesarekin.

**Web-orria: https://bilbaobbklive.com/eu/**
**Irisgarritasun-neurriak**





## BILBAO BLUES FESTIVAL

**Noiz? Uztailaren 25etik 27ra**
**Non? Areatzan**

**Zer eskaintzen du?**
Nazioarteko eta bertako bluesaren talde onenen kontzertuak.

Gainera, programazioan daude ere hitzaldiak, eskolak, kontzertuak, haurrentzako jarduerak eta kaleko animazioa.

Jaialdi hau nahitaezko hitzordu bihurtu da bluesa eta oro har musika ona maite dutenentzat.

**Web-orria: https://www.bilbaobluesfestival.com/eu/**



_ itzuli

## BIME LIVE
## Musikaren Industriaren Nazioarteko Topaketa

**Noiz?** **Urriaren 28tik 31ra**
**Non?** **Euskalduna Jauregian**

**Zer eskaintzen du?**
Latinoamerikako eta Europako musikarekin lotutako profesionalak eta artistak elkartzeko aukera.

Topaketa honetan, musikarekin lotutako artistek eta profesionalek harremanak izan ditzakete eta hazkunde ekonomiko eta kulturala lor dezakete.

**Web-orria: https://bime.org/eu**
**Irisgarritasun-neurriak**



## JAZZ-ON FEST

**Noz? Urritik abendura**
**Non? Jazz-on aretoan (Urazurrutia kalea)**

**Zer eskaintzen du?**
Askotariko jazz-programazioa,
estatuko eta nazioarteko pertsona ospetsuekin.

Gainera, jaialdi honek hirian
jazzerako talentua duten pertsonak bultzatzen ditu,
eta zaleentzako topagunea da.

**Irisgarritasun-neurriak**



## FESTIVAL BILBOLOOP

**Noiz? Azaroan**
**Non? Azkena aretoan**

**Zer eskaintzen du?**
Bertako, estatuko eta nazioarteko
talde berri onenen kontzertuak.
Bilboko hainbat aretotan ere
doako jarduerak eskaintzen ditu.

Jaialdi honek 24. edizioa
ospatuko du aurten.

**Web-orria: https://www.bilboloop.com/**
**Irisgarritasun-neurriak**



# ONDAREA ETA IDENTITATEA

Lurralde baten ondareak eta nortasunak leku horren memoria, balioak eta historia ordezkatzen eta gordetzen duten ondasunekin du zerikusia.



## BILBOKO UDAL ARTXIBOA

### Zer eskaintzen du?

Bilboko Udal Artxiboak aukera ematen du administrazio-espedienteak, argazki bildumak, planoak, kartelak eta dokumentu grafikoak kontsultatzeko.

Material horiek udal funtsarenak eta lagatako edo eskuratutako beste funts batzuenak dira, hala nola Ricardo Bastida arkitektoarena eta La Gaceta del Norteren argazki-funtsarenak. Gainera, online ere kontsulta daitekeen artxiboa ere badu.

**Web-orria: https://bilbao.udalartxiboa.eus**

**Irisgarritasun-neurriak**

## BIZKAIKO FORU ARTXIBO HISTORIKOA

### Zer eskaintzen du?

Artxibo honek, gordetzen, zaintzen eta publikoaren esku jartzen du Bizkaiko dokumentazio historiko guztia, edozein jatorri eta euskarri duela ere.

**Web-orria: https://www.bizkaia.eus/eu/web/archivo/**

**Irisgarritasun-neurriak**



## EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA

### Zer eskaintzen du?

Euskadiko memoria historikoaren adierazgarri,
paperean zein formatu digitalean dauden altxorrak.
Dokumentu ugari gordetzen ditu,
ofizialak eta pertsona partikularrenak
eta euskal gizarteak denboran zehar izan dituen
bizimoduak erakusten dituztenak.

**Web-orria: https://www.artxibo.euskadi.eus/hasiera/**

**Irisgarritasun-neurriak**

## ARTXIBOAZ
## Azkuna Zentroaren Artxibo digitala

### Zer eskaintzen du?

Artxibo honek Azkuna Zentroko kultura-programazioa
gordetzen du formatu digitalean.
Gaur egungo sorkuntza ulertzeko tresna bat da.

**Web-orria: https://artxiboa.azkunazentroa.eus/?locale=eu**

**Irisgarritasun-neurriak**



## ONDARE ARETOA

### Zer eskaintzen du?

Berezko ekoizpeneko erakusketak
eta beste erakunde batzuek antolatutako erakusketak.
Erakusketen gaiak askotarikoak dira,
eta arreta berezia jartzen zaie
kultura-ondarearekin lotutakoei.

Bizkaiko Foru Aldundiaren aretoa da
eta erakusketak hartzeko 400 m2-ko espazioa du.

**Web-orria: https://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/detalleContenido.asp?t=4&id=9**

**Irisgarritasun-neurriak**



## EUSKARAREN ETXEA

### Zer eskaintzen du?

Euskaran espezializatutako zentro honek
euskararen interpretaziorako
munduko zentro bakarra du.

Euskarari buruzko erakusketa ludiko
eta xehatua hartzen du espazio honek.
Egungo egoerari buruzko datuak ematen ditu,
baita gure hizkuntzaren historiaren errepasoa,
hitz-jolasak euskaraz, ikus-entzunezkoak,
eta euskal kulturaren aberastasuna eta kalitatea
eta etorkizuneko erronkei buruzko informazioa.

**Web-orria: www.euskararenetxea.eus**

**Irisgarritasun-neurriak**



## DANTZA PLAZETAN

**Noiz? Urte osoan zehar (abuztuan izan ezik)**

**Zer eskaintzen du?**
Euskal dantzen, kalejiren eta erromerien erakustaldia Bilboko kale eta plazetan. Erakustaldi hau Bilboko Udalak antolatzen du Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin lankidetzan.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**



## DIVERSITOURS KULTURARTEKO IBILBIDEAK

**Zer eskaintzen du?**
KOOP SF 34 erakundearen hezkuntza- eta komunitate-proposamena, bisita gidatuen bidez, Bilboko kultura-aberastasuna eta -aniztasuna erakusteko.

San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala bezalako auzoetako ibilaldiek migrazioen eta kultura desberdinen arteko bizikidetzaren gaurko eta iraganeko historia garrantzitsua erakusten dute.

**E-maila: diversitoursbilbo@gmail.com**



## DANTZAK ESKOLETARA

**Noiz? Ikasturtean zehar**

**Zer eskaintzen du?**
Hainbat ikastetxe publikotan euskal dantzen ikastaroak, Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren arteko lankidetzari esker.



## LORALDIA FESTIBALA
## XI. LORALDIA: Trikua esnatu da!

**Noiz? Martxoaren 10etik 30era**

Zer eskaintzen du?
Euskarazko kultura eta sortzaileak dinamizatzeko eta ezagutzera emateko kultura-jaialdia.
Emozio asko pizten dituzten gai askotako emanaldiak daude.

**Web-orria: https://www.loraldia.eus/**

## BILBAO BASQUE FEST

**Noiz? Apirilaren 16tik 20ra**

**Zer eskaintzen du?**
Euskal kulturari, artistei eta sortzaileei buruzko jaialdi turistikoa.
Hiriko toki desberdinetan
6 gai hauekin lotutako jarduerak daude:
kultura, musika, kirola, merkatua, zinema eta gourmet.

**Web-orria: https://basquefest.bilbao.eus/eu/**



## BILBAINADA LEHIAKETA

**Noiz? Deialdi irekia apiriletik ekainera**

**Zer eskaintzen du?**

Lehiaketak Bilboko abesti herrikoia bultzatu nahi du.
Udalak sustatzen du,
Radio Nervión eta TeleBilbaorekin batera.

Sariak Aste Nagusian banatuko dira.
Bilbainaden irabazleen CDa aurkezteko gala
Arriaga Antzokian egingo da, urte bukaeran.

**Web-orria: https://bilbaokultura.eus/es/**

## UDABERRIKO BERTSO SAIOAK

**Noiz? Maiatzean**

**Zer eskaintzen du?**

Bertsolaritzako saioen programa.
Aurten 41. edizioa beteko du.
Bilboko Udalak antolatzen du,
Santutxuko Bertso Eskolarekin elkarlanean.

Maiatzeko lau larunbatetan zehar,
bertsolari ospetsuenak arituko dira.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/**





## KULTURA-ANIZTASUNAREN MUNDUKO EGUNA

**Noiz? Maiatzaren 21ean**
**Non? Azkuna Zentroan**

### Zer eskaintzen du?

Maiatzaren 21a Elkarrizketarako eta Garapenerako Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna da. UNESCOk bultzatzen du egun hau. Bilbok bat egiten du ospakizun honekin, UN etxea – UNESCO sustatzeko Euskal Herriko Elkartearen eskutik.

Ospakizunak munduko kulturen aberastasuna nabarmendu nahi du, baita kulturen arteko elkarrizketak bakea eta garapen iraunkorra lortzeko duen zeregin garrantzitsua ere.

Ekintza honek sustatzen du pertsona guztiek bizitza kultural betea izateko, parte hartzeko eta gozatzeko duten eskubidea.

**Web-orria: https://unetxea.org/eu/kultura/**
**Irisgarritasun-neurriak**



# BILBAO IZAN

**Noiz? Maiatzean, uztailean, irailean eta abenduan**

**Zer eskaintzen du?**
Bilboko ondare historikoa
sustatzeko eta hedatzeko udal-programa.
Maiatzetik ekainera oinezko bisita gidatuak
eskaintzen ditu hiriko zenbait lekutatik.

Sare sozialetan ezagutzera ematen ditu ere
Bilbon bizitako pasadizoak, pertsona,
gertaera eta une historikoak,
Txio Ta Txio izeneko bideoen bitartez.

Argazkineta proiektuak auzokideen testigantzak
jasotzen ditu eta material digital bihurtzen ditu
auzoetako kontakizun kolektiboa eta historikoa eraikitzeko.

**Web-orria: https://bilbaokultura.eus/bilbao-izan/**



## 25. ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

**Noiz?** **Urrian**

**Zer eskaintzen du?**
Ate irekien jardunaldiak,
eta denon ondarea sustatzeko eta babesteko
eta kulturarteko elkarrizketak bultzatzeko.
Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen du.

Bisita gidatuak, ibilbideak, erakusketak, hitzaldiak,
kontzertuak eta beste kultur ekitaldiak antolatzen dira.

**Web-orria: https://ondareabizkaia.eus/**



Itzuli

# AISIALDI KULTURALA



## ERREGEEN KABALGATA

**Noiz? Urtarrilaren 5eko goizean**
**Non? Kale Nagusian eta Buenos Aires kalean, udaletxeraino.**

### Zer eskaintzen du?

Kabalgata Kale Nagusian eta Buenos Aires kalean zehar ibiliko da, udaletxeraino.
Urtarrilaren 5eko goizean,
Errege Magoei harrera egingo zaie udaletxean.



## ARATUSTEAK

**Noiz? Martxoaren 1etik 5era**

### Zer eskaintzen du?

Desfileak eta txarangak Zazpi Kaleetan eta Zabalguneko kaleetan zehar ibiliko dira, Jai Batzordeak aukeratutako Farolínekin eta Zarambolasekin batera.

Egun horietan hainbat jarduera egongo dira: kontzertuak, antzerkia, haurrentzako tailerrak, mozorro-lehiaketa eta dantzak.



## AFRIKA EGUNA

**Noiz? Maiatzaren 18tik 25era**
**Non? Itsasmuseumen eta Euskalduna zelaietan**

**Zer eskaintzen du?**
Maiatzaren 25ean Afrikako Eguna da.
Bilboko afrikar elkarteek
eta afrikar jatorria duten pertsonek
"Afrika Eguna, Bilboko Harrotasuna"
jaialdia antolatzen dute.

Jaialdiak kontinentearen errealitatea ikusarazten du,
lurraldearen aberastasunak, ahalmenak
eta itxaropenak azalduz.

Jaialdia maiatzaren 18an hasiko da
2025eko Afrika Eguna txapelketaren ospakizunarekin,
Berriotxoa ikastetxean.
Gainerako ekitaldiak 23an, 24an eta 25ean izango dira
Itsasmuseumen eta Euskalduna zelaietan.

**Web-orria: https://afrikaeguna.com/**
**Irisgarritasun-neurriak**

## GAU ZURIA

**Noiz? Ekainaren 13an eta 14an**

**Zer eskaintzen du?**
Abangoardia, argia eta teknologia
batzen dituen ikuskizun artistikoa.
Bilboko Hiribilduaren urteurrena
ospatzeko egiten da.
Bi gauez, Udalak argiztapen berezia
ematen dio hiriari.



## ASTE NAGUSIA
## Bilboko Aste Nagusia

**Noiz? Abuztuaren 16tik 24ra**

**Zer eskaintzen du?**
Jarduera anitzez betetako 9 egun, doakoak eta gehienak aire librean.

Bilbo osoan zehar gustu guztietarako 100 musika jarduera eskaintzen dira. Jarduera hauez ere goza daiteke: su artifizialak, kale-antzerkia, lehiaketa gastronomikoak, pilota, arrauna eta herri-kirolak.

**Irisgarritasun-neurriak**



_ itzuli

## MUNDUKO JENDEEN JAIALDIA

**Noiz? Urrian**

**Zer eskaintzen du?**
Jaialdi honetan, musika, dantza, gastronomia, hitzaldi eta mahai-inguruen bitartez bultzatzen dira pertsonen arteko harremanak, errespetua, elkarrizketa eta adiskidetasun eta profesionalen arteko loturak.

Jaialdi hau gizartea sentsibilizatzeko proiektua da, beste kultura batzuk ezagutarazteko eta euskal gizartearen eta Bilbon bizi diren migratuen taldeen artean harremanak sortarazteko.

**Web-orria: https://www.facebook.com/federaciongentesdelmundo/**

## FAIR SATURDAY

**Noiz? Azaroko azken larunbatean**

**Zer eskaintzen du?**
Black Friday-aren biharamunean ospatzen da. Artearen eta kulturaren bidez mundua aldatzea helburu duen eguna da.

Bilbon 2015ean jaio zen nazioarteko kultura mugimendua da. Gizartea mugitzea helburu du, gizarte eragina duen kulturaren alde. Jaialdian parte hartzen duten erakundeek eta artistek gizarte-proiektu bati emango diote kultura-jarduerarekin irabazitakoaren zati bat.

**Web-orria: https://fairsaturday.org/?lang=eu**



## ONGIETORRIA OLENTZERORI

**Noiz? Abenduaren 23an eta 24an**
**Non? Hiriko hainbat lekutan**

**Zer eskaintzen du?**
Olentzero **abenduaren 23an** iritsiko da Bilbora, opariz beteta.
Arratsaldeko 18:00etan agertuko da Moyua plazan, eta kalez kale ibiliko da Arriaga Antzokiraino.
Bertan pasako du gaua.

**Abenduaren 24an,** 11:00etatik 14:00etara, Olentzerok eta Mari Domingik Arriaga Antzokian haurrei harrera egingo diete.
Arratsaldean, auzoetara abiatuko dira.



## NEXT MUSEUM

**Noiz? Urtean zehar**

**Zer eskaintzen du?**
Munduko koadro ospetsuenetan murgiltzeko, koloreak ukitzeko eta soinuak entzuteko erakusketak.
Artea bizitzeko modu berria da, murgiltze-teknologia gorenenari esker.

**Web-orria: https://www.nextmuseum.net/es/lugares-de-exposicion/proximo-museo-bilbao/**

**Irisgarritasun-neurriak**



# HURBILEKO KULTURA

Hurbileko kultura barrutietan eta auzoetan egiten diren kultura jarduerek osatzen dute. Bertan bizi diren herritarrek kulturaz gozatzeko eta sortzeko gaitasunak garatzeko egiten dira.



## BILBO BARRUTI ESZENIKOA

**Zer eskaintzen du?**
Bilboko Udalak egitasmo ugari antolatzen ditu arte eszenikoak hiriko barruti guztietara hurbiltzeko.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**

Bilbo Barruti Eszenikoak eskaintzen dituen jarduerak dira:

- **Bilboko Zirkuitua**

Noiz? **Eguenetan, urtarriletik maiatzera eta urritik abendura**
Non? **Barrutietako udaltegietan**

**Zer eskaintzen du?**
Bilboko eta gainerako Bizkaiko konpainia afizionatu eta erdiprofesionalen antzerki-emanaldiak.

**Irisgarritasun-neurriak**



- **Errekaldeko Umorezko Antzerki Erakustaldia**

Noiz? **Barikuetan, martxoaren 7tik 28ra**
Non? **Errekaldeko udaltegian**

**Irisgarritasun-neurriak**

- **Deustualdeko Klown Jaialdia**

Noiz? **Otsailaren 7tik 26ra**
Non? **Deustuko udaltegian, gazteentzat eta helduentzat. San Ignazio-Ibarrekolandako udaltegian publiko guztientzat**

**Zer eskaintzen du?**
Clown saioak.

**Irisgarritasun-neurriak**

- **XXI. Magia Topaketak**

Noiz? **Maiatzean**
Non? **Otxarkoagako udaltegian Txurdinagako Garai Lorategia plazan**

**Zer eskaintzen du?**
Bertako, estatuko eta nazioarteko 20 magoren magia-ikuskizunak.

## • Bilboko Dantzaguneak Kalera

**Noiz? Ekainaren 7an eta 8an**
**Zer eskaintzen du?**
Tokiko ballet eta dantza eskoletako eta akademietako ikasleen emanaldiak, irakasleen eskutik.

## • Clown Zorrotza

**Noiz? Maiatzaren 9tik 11ra**
**Non? Zorrotzan**
**Zer eskaintzen du?**
Clown emanaldiak.

## • Ibaiondo Dantzan

**Noiz? Ekainaren 20an eta 21ean**
**Non? Miribilla auzoan**
**Zer eskaintzen du?**
Dantza garaikideko emanaldiak kaleetan.



## • Eszena Kalera

**Noiz? Irailean**
**Non? Bilboko barruti guztietan**
**Zer eskaintzen du?**
Antzerkia eta kaleko arteak.
Zirku garaikideko, clown, magia, dantza, antzerki emanaldiak eta parte-hartzeko ekintzak.

## • Zirkualde

**Noiz? Irailaren 18tik 21era**
**Non? Errekalden**
**Zer eskaintzen du?**
Zirkuarekin lotutako arteen jaialdia.
15etik 17ra Dantza Bertikalaren III. Topaketa eta CircoRed Estatuko Kongresua egingo dira.





## BILBO MUSIKA BARRUTIA

**Zer eskaintzen du?**

Bilboko Udalak musika eramango du
hiriko txoko guztietara,
bertako erakundeekin lankidetzan.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**

Bilbo Musika Barrutiak eskaintzen dituen jarduerak dira:

- **Betiko Musika Otxarkoagan**

**Noiz?** **Urtarrilaren 25etik apirilaren 5era**
**Non?** **Otxarkoagako udaltegian**

**Irisgarritasun-neurriak**

- **Bilbao Distrito Jazz**

**Noiz?** **Urtarrilaren 31tik martxoaren 7ra**
**Non?** **Udaltegietan eta beste toki batzuetan**
**Zer eskaintzen du?**
Jazz kontzertuen zikloa,
Bilbaína Jazz Clubarekin lankidetzan.

- **Musika-zikloak**

**Non eta noiz?**

- **Musika dibertigarria da: Barikuetan, maiatzaren 2tik 30era.**
- **Mila Musika Haria: azaroan eta abenduan.**
  Gitarra eta hari-instrumentuen zikloa,
  **Bertendonako Institutuan.**
- **Bazter Fest #11. Azaroan**.
  Emakumeen hip-hop kulturaren jaialdia.
  **BilboRocken.**

**Irisgarritasun-neurriak**

- **MusikAuzo**

**Noiz?** **Maiatzean eta ekainean**
**Non?** **Barruti guztietan**
**Zer eskaintzen du?**
Musika-estilo desberdinetako kontzertuak.





## BILBO BARRUTI BISUALA

**Non? Barrutietako udaltegietan**

**Zer eskaintzen du?**
Udalak pintura eta argazkigintza bezalako arte bisualak hiriko barruti guztietara eramaten ditu.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**
**Irisgarritasun-neurriak**

- **Expodistrito**

**Noiz? Urte osoan zehar, uztailean eta abuztuan izan ezik**
**Non? Barrutietako udaltegietan**
**Zer eskaintzen du?**
Bertako artisten pintura eta argazkien erakusketa artistikoak.
3 hilean behin argitaratzen da erakusketen katalogoa.





## BILBO AISIALDIKO BARRUTIA

- **Mintzapraktika**

**Zer eskaintzen du?**
Euskara aisialdi-eremuan praktikatzeko programa.
Euskara dakitenentzat eta ikasten ari direnentzat.

4-6 pertsonako talde txikiak antolatzen dira auzoka edo zaletasunen arabera.
Astean gutxienez ordubetez biltzen dira.

**Web-orria: https://praktikatu.eus/blog/bilbo/nor-gara/**

- **Bira Kulturgunea**

**Noiz? Urte osoan zehar**
**Non? Zazpi Kaleetan**
**Zer eskaintzen du?**
Euskal sortzaileentzako euskara eta euskal kultura sustatzeko programa.
Bertan eskaintzen dira: antzerkia, hitzaldiak, ikuskizunak, dantza eta musika saioak.

**Web-orria: http://www.bira.eus**



• Lautan hiru

**Noiz?** **Urtarrilean eta otsailean**
**Non?** **Zazpi Kaleetan (Bira Kulturgunea, Cafe Bar Bilbao, 7Katu gaztetxea, Kalderapeko eta Euskaltzaindiaren egoitza)**
**Zer eskaintzen du?**
Antzerki ikuskizunak euskaraz.

**Web-orria: https://www.euskaltzaindia.eus/**

• Harrapazank

**Noiz?** **Martxotik maiatzera**
**Zer eskaintzen du?**
Euskara gehiago erabiltzea bultzatzeko eta euskararen aldeko jarrera hobetzeko programa, 10 eta 16 urte bitarteko gazteentzako.

3 atal ditu:

- **Harrapazank Eszena: a**rtista gazteen talentu-lehiaketa.
- **Klikazank:** bideo-jokoen lehiaketa.
- **Harrapazank irteerak:** eguneko irteerak.

**Web-orria: https://harrapazank.eus/eszena/**

• Ikusi eta ikasi

**Noiz?** **Otsailetik maiatzera**
**Non?** **Barruti guztietan**



**Zer eskaintzen du?**
Aisialdiko, kulturako eta heziketako programa, 2 eta 11 urte bitarteko haurrentzat.
Familien eta lagunen artean egiteko tailerrak.
**Web-orria: https://www.ikusietaikasi.eus/**

• Bidaiarien txokoa

**Noiz?** **Martxoaren 7tik apirilaren 5era**
**Non?** **Begoñako eta Santutxuko udaltegietan**
**Zer eskaintzen du?**
Hitzaldiak, proiekzioak, erakusketak, kontzertuak eta tailerrak.
Bidaiak, abenturak eta beste kultura batzuk auzoetara hurbiltzeko programa.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**
**Irisgarritasun-neurriak**

• Santutxu Kolorea

**Noiz?** **Ekainaren 6tik 8ra**
**Non?** **Santutxu**
**Zer eskaintzen du?**
Folklorea sustatzeko programa.
Udalak eta Gaztedi Dantzari Taldeak antolatzen dute.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**

- **Darabilbo**

**Noiz? Irailetik ekainera**
**Non? Bilboko auzoetan**
**Zer eskaintzen du?**
Aisialdian euskaraz aritzeko jarduerak: bisita gidatuak, hitzaldiak, tailerrak, dastatzeak, txangoak…
16 urtetik gorakoentzako.

**Web-orria: http://darabilbo.blogspot.com/**

- **Plazarik Plaza**

**Noiz? Irailaren 25etik 27ra**
**Non? Basurtun**
**Zer eskaintzen du?**
Beti Jai Alai Dantzari Taldeak antolatutako folklore-programa.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**



- **Kultur Tailerrak**

**Noiz? Urritik maiatzera**
**Non? Barrutietako udaltegietan**
**Zer eskaintzen du?**
Artisautzako eta arte aplikatuen, plastikoen eta bisualen tailerrak, euskaraz eta gaztelaniaz.

**Irisgarritasun-neurriak**

- **Berbagunea**

**Noiz? Azaroan**
**Zer eskaintzen du?**
Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ekitaldia.
Egun oso batean zehar, euskara-maila desberdina duten pertsonak biltzen dira euskaraz gai ezberdinei buruz hitz egiteko.

**Web-orria: http://berbagunea.eus/**



## KULTUR GABONAK

**Noiz? Abenduan**
**Non? Barruti guztietan**

**Zer eskaintzen du?**
**Gabonetako kultura-eskaintza.**
Antzerkia, zirkua, clown, magia,
ipuin-kontalariak, kontzertuak, erakusketak,
kalejirak, erromeriak eta dantzak.

**Gabonetako abesbatza-kontzertuen zikloa.**
Bilboko 30 abesbatzen
errepertorioaren erakusketa.
Ziklo hau barrutietako hainbat parrokiatan
egiten da, azaroan eta abenduan.

**Web-orria: https://kulturabarrutik.eus/eu/hasiera/**





Bilboko Udalak ematen dizu
Bilbao Kulturaren datozen urteetako
programazioak eta hileko agenda kulturala
formatu digitalean posta elektronikoz jasotzeko aukera.

Bidaliko dizugun postan aurkituko duzu
Bilbon antolatzen diren
aisialdi- eta kultura-jarduerari buruzko
informazio eguneratuagoa eta zabalagoa.

Programazioa jasotzeko, bidali zure datu pertsonalak
posta elektronikoz helbide honetara:
**agendakulturala@bilbao.eus.**
Web-orrian horretarako sortutako tokian
ere aurki dezakezu: **https://bilbaokultura.eus**

Bilboko Udalak eskerrak eman nahi dizkie
administrazio eta erakunde publiko,
herritarren elkarte eta entitate pribatu guztiei,
programazio hau posible egiten baitute
haien lanarekin, dirulaguntzekin eta laguntza ekonomikoekin,
babesarekin eta kolaborazioekin.

